

7. BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezero berriak lortzeko publizitatea erabiliko dugu. Haiekiko harremana zerbitzuen konbinazio baten bidez egingo da: zerbitzu automatizatua webgunearen bitartez, bezeroek beren eskabideak egin ahal izan ditzaten denda fisiko batera joan behar izan gabe eta bezeroen zalantzak argitzeko bezeroen arretarako zerbitzu pertsonalizatua. Gainera salmenta osteko arreta eskaintzen dugu. Horrez gain, erosleek gure produktua denda banatzaileetan erosteko aukera dute.

Produktua hobetzeko, gure bezeroek produktuari buruzko iritzia bidaltzeko aukera dute, baita web-orriaren bidez hobetu daitezkeen gauzei buruzkoa ere.

